

SOBERAKINEN SALMENTA

1 – SOBERAKINEN SALMENTEN KONTZEPTUA

Narriaduraren, hondaketaren, erabil ezaren edo zaharkitzapenaren ondorioz, merkatu-balioa nabarmenki gutxituta duten produktuen salmenta da.

Salmenta mota honetan nahiko argibide eman beharko da eragin duten egoera eta zergatiak azaltzeko.

Salgai dauden produktu guztiak soberakin-salmentakoak ez badira, salmenta mota honetan eskainitakoek besteetatik aldendurik egon beharko dute.

Soberakinen salmentaren barruan eskaintzen diren artikuluen erdia baino gutxiago aurkitzen baditugu, orduan salmenta mota hau ezin daiteke neurri orokor bat bezala iragarri. Ukituta dauden artikulua eta sektoreak iragarri beharko dira.

Engainagarri izango da opari edo sariekin egiten den eskaintza baldin eta kontsumitzaileak modu erreal batean jasotzen ez badu egin zen eskaintzaz zentzuz espero zezakeena.

Ez da soberakinen salmenta:

Kontsumitzaileari arriskua edo engainua suposatzen dioten produktuen salmentak edota ohizko prezioaren azpitik saltzen ez direnak.

Produktuek sei hilabete baino gehiago egon behar dute dendan edo saltzailearen jabetza izan behar dira gutxienez sei hilabeteko epearekin soberakinen salmenta egin aurretik, salbuespen batekin: establezimendua salmenta mota honetan aritzea.

2 – BETEBEHAR GARRANTZITSUENAK

EPEARI DAGOKIONEZ

- ❖ Soberakinen salmenten indarraldia adierazi beharko da.

ETIKETARI DAGOKIONEZ

- ❖ Produktuak modu zuzen batean etiketatu beharko dira eta haien osagaiak xehetasunez adierazi beharko dira.
- ❖ Saltzekoak diren artikulua prezio beherapenarekin agertzen badira, argitasunez agertu behar dira, artikulua bakoitzean, lehenengo prezioa eta orain eskatzen dena, alegia murriztutako prezioa.
- ❖ Hala ere, artikulua multzo baten portzentajezko murrizpena baldin bada, iragarpen generikoarekin aski izango da eta ez da beharrezkoa artikulua bakoitzean horrela agertzea.

JAKINARAZPENARI DAGOKIONEZ

- ❖ Salmenta-modu hau egiteko ez da beharrezkoa izango Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza Sailari jakinarazpena egitea.

SALMENTEN KUDEAKETA / BESTE BETEBEHARREI DAGOKIENEZ

- ❖ Modu ikusgarri batean erakusten ez bada, dendetan eskainitako ordainbideak, txartelak edo urte osoan dauden itzultze-politikak soberakinen salmenta irauten duen denboran indarrean jarraituko dute.
- ❖ Salmenta mota hau iragartzeko, <<Soberakinen salmenta>>adierazpena erabiliko da.
- ❖ Produktuak hondatuta edo akastun badaude, modu erakusgarri eta zehatz batean iragarri beharko dira.

3 – ARAUTEGI ERREGULATZAILEA

Estatuko legea: [7/1996 Legea, 1996ko urtarrilaren 15koa](#), Xehekako Merkataritzaren Antolamenduarena. (18, 19, 20, 21, 28 eta 29 artikulua)

Lege autonomikoa: [7/1994 Legea, maiatzaren 27koa](#), Merkataritza Jarduerari buruzkoa. (25 artikulua)